

1. Zer dora ilhun-zeinuak?
2. Mus partidan nor da zehurrena?
3. Itsasuarak euan- eta kartak, norkditz hoberunk?

(II) Piarresen Igandea. Biharramunean 10

Ilhun-zeinuak jo zuten hainbertzenarekin, eta, bere xokotik, gazte kantarietarik batek oihu egin zuen berehala: "Anjelus!" Eta han zirenek orok, kapelua khendu eta, kurutzearen seinalea eginik, ahapetik erran zuten egiasko eskualdun batek, non nahi eta bethi, erraiten ohi duen othoitx maitea.

Eta orai, jostetak utzirik, kopetak zimurrik, *iñhar* bat noiz elgarri baz, keinu bat ezin sartuz, tantoz tanto bazoazin lauak, lakasta^{se} batzuen pare aztaparka elgarri lothuak. Pettek hiru tanto galdu ditu: lau *andre*, lau *erregen* kontra...

"Ez baitut hogoi liberakoa hortxet igoori, Piarres!"

- Ez, ez oraino. Goazen pulliki."

Pulliki edo itsuski, oraikotik debruak joan du gure mandoa, ezen, bost hamarreko eta launa tanto dira bi alderdietatik... Beraz, orotan tantoa behar!... Piarres exku da.

"Goazen pulliki, Pette, eta orhoit *pasoak* eta *musak* ere badirela oinon azken tantoan..."

Itsasuarak eman ditu kartak, eta... heldu zaizkote: *Errege, zdun, batteko, batteko* Piarresi, *Errege, xango, batteko, batteko* kartemaileari... Ah! elgarren berri ez hor jakinen!

Bultatto bat gogocetan egonik, ilhun ilhuna hasten da Piarres:

"Paso handira!..."

Itsasuarak aski luke tanto bat, handiko tanto hura... Eta hain axen *Errege, xango* eskuetan ditu. Ba, bainan gero, bi batteko baizik ez, ondotik jarraikitze!... Hobe du beraz *xikirat* joanik. Han, han, jostetak! Paso joanen da beraz handirat: "Paso!" Pette eta Mixel paso joan dira hek ere, beren lagunen jokorik ez ondatzeko.

Hainbertze gizon bazirclarik barne hartan, nchoren hatsik ere ez zen han gehiago czagun; oro ixil ixila egoki, hats-bahituak, sukarbat begietan. Ostixoko kantari zaharrak halako daldara hoi bat bazuen ezpainenetan; aldiz, daldara hoi eskuetan zuen gaur-gero Itsasuarak:

"Ah! paso joan zaiztea guziak! Gurea duk partida!"

Eta urhe begi-gorrien gainetik Mixel bere lagunari eskua hedatu-rik, bere bi battekoak agertzen ditu –bainan jo gabe– mahainaren gainera. "Orai, orai xitximariak!"

(III) ADITZ IKASKUNTEA

31. bazoazin <u>Il</u> Goazen	<u>Imparfait</u>
33. heldu zaizkote <u>34</u> aski luke.	
<u>31 JOAN. Indicatif</u>	
<u>Present</u>	<u>Imparfait</u>
Ni noa (je vais)	nindoan (j'allais)
Hi hoa {	hindoan {
Zu zoatz	zinoatzin
Hura doa	zoan
Gu goatzi	ginoatzin
Zuek zoazte	zinoazten
Hek doatz	etc. zoatzin etc

<u>32. JOAN</u>	<u>Imperatif</u>
(Hi) hoa	= Va
(Zu) zoazi	= Allez
(Gu) goazen	= Allons
(Zuek) zoazte	= Allez

<u>33. IZAN Régime Indirect-Indicatif Present</u>	<u>Present</u>
Hura da = Il est	

<u>Hura Zait</u>	= il n'est
" Zaizu	= il vous est
" Zaito	= il lui est
" Zaigu	= il nous est
" Zaizue	= il vous est
" Zaie	= il leur est

<u>Hek dire = Il sont</u>	
Hek: eux Zaizket	= ils me sont
Zaizbez	= ils vous sont
Zaizbio (zaizko)	= ils lui sont
Zaizkezu	= ils nous sont
Zaizkiegu	= ils vous sont
Zaizkie (zaizkote)	= ils leur sont